



Bakarne Atxukarro Estomba
Aritz González Amundarain



Onyarbin Blagan

- Bakarne Atxukarro Estomba -
- Aritz González Amundarain -



IDEIA: Aritz Gonzalez Amundarain, Juantxo Atxukarro Irulegi eta
Bakarne Atxukarro Estomba

AZALA: Javier Paris Larrea

MAKETAZIOA: Bakarne Atxukarro Estomba

TESTUA: Bakarne Atxukarro Estomba

ARGAZKIAK: Bakarne Atxukarro Estomba

AHOTSAK: Aritz Gonzalez Amundarain eta Mikel Aya Kerejeta

E-MAIL: bakarne_a@hotmail.com

Hondarribiko herritar guztiei

Euskara maitatzen duten guztiei



AURKEZPENA



Euskara batuak elkarri ulertzea erraztu digu. Horri esker Bizkaiko Bermeoko norbaitek Nafarroako Zubietakoekin arazorik gabe hitz egin dezake, Bernardo Atxagak zer idazten duen ulertzen ahal dugu, eta testu liburuetan irakasten dena ikas dezakegu.

Baina, hala eta guztiz ere, gure betiko hizkera, oso barnean duguna, ez da desagertzen. Horregatik, herrikoekin elkartzen garenean, gure hizkera erabiltzen dugu hitz egiteko.

Aberastasun hori polita da. Ondare hori, garrantzitsua; izan ere, arbasoak orain arte nola bizi izan diren eta zer transmititu diguten agirian uzten du.

Hori dela eta, lerro hauetatik omenaldi txiki bat egin nahi diogu euskalki bateko hizkera jakin bati. Ez da bakarra, badakigu. Beraz, oraindik geratzen diren euskalki guztiei egindako omenalditzat har dezakegu.

JOSE ANTONIO

Jose Antoniok bere trajerik dotoreena jantzi zuen, ilean gomina eman, eta autoa hartu. Tolosatik Hondarribiarainoko bidean hamaika gauza zebiltzan bueltaka haren buruan. Egitasmo berri hura berezia zen. Euskaltzaindiarako egingo zuen txosten horrek akademiako ateak zabal-zabalik utziko zizkiolakoan zegoen.

Amets gozoetan euskaltzainen artean ikusten zuen bere burua.

Zenbatgarreneko aulkia izango zen berea? Irribarrea loratzen zitzaion ezpainenetan horri buruz pentsatzen zuen bakoitzean.





Baina oraindik ez zuen ametsa betetzeko aukerarik izan.
Hondarribian lortuko zuen aukera hori. Seguru!

Egin behar zuena ez zen gauza berria. Nahiz eta herria oso handia ez izan, 28 kilometro karratukoa eta 18.000 biztanleduna, batzuen esanetan Hondarribian bertan hiru hizkera ezberdinak zeuden: baserritarra, kaletarra eta portuarra.

Azken hori zen aztertuko zuena, beste euskalki anitzen eragina baitzuen, eta, horren ondorioz, kultura asko islatuko zuelakoan zegoen. Jose Antoniok aberastasun hori lau haizetara hedatu nahi zuen: esamolde bitxiak, hitz bereziak, etab.



Ahozko euskalki bat zen. Ohikoa zen arrantzaleek erabiltzea, barkuetan ez ezik, kaleetan baita haien jardueretan ere. Normalean, gizonen artean erabiltzen zen, baina haien ingurukoenganaino zabaltzen zen; beraz, La Marinako (tradizioz portuarrak gehien mintzatzen zen auzoa) gizonezkoekin eta emakumezkoekin hitz egin beharko zuen. Ondo zekien haren azterketarako gauza handirik ez zuela idatzita aurkituko.



Jose Antonio Benta Zaharreko aparkalekura heldu zen. Han aparkatu, eta ondoan dagoen kafetegirantz abiatu zen, han zeuden herritarren arteko solasaldiak entzuteko asmoz. Belarria egin nahi zuen ahalik eta azkarren.

Baina han marinel girorik ez zegoen. Lastima. Kafe bat hartu, eta orduan bai, Marinarako bidea hartu zuen.

Goxotegi baten pareko etheen arteko pasabide labur bat gainditu ostean, San Pedro izeneko oinezkoen kale koloretsu bat ageri zen haren begi aurrean.

Etxe txuriak eta koloretako balkoiak, tabernak, terrazak, banketxeak, dendak nonahi zituen kalea. Hura giroa! Jendea joan-etorri etengabea, agure batzuk kaleko bankuetan hitz eta pitz eserita, haur txikiak korrika, tabernariak mahaiak eta aulkiak aurrera eta atzera terrazetan, eta turistak, adin guztietako turistak, gehienak oso dotore jantzita kalean gora, kalean behera.





Jose Antoniok lasai ederrean egon nahi zuen eguneroko bizimodu horri begira, horregatik, adineko gizon bat eserita zegoen banku berdinean jesarri zen.

“Egun on”, esan zion. Baina gizonak bekainak gora eta behera mugitu besterik ez zuen egin.

Txotx bat zeukan hortzetan, txapela buruan eta makila eskuartean eutsita. Aurpegia zimur-zimurtuta, eskuak okertuak, artrosiak jota, eta begi urdinak ia-ia itxita, aurrera begira, auskalo nora. Agian oroitzapenetan zeukan itsaso zabal hartara.

“Eguraldi ederra gaurkoa, e?”, saiatu zen berriro Jose Antonio, baina ondoko gizonak zeharka begiratu zuen, mutu.

Hori ikusita, Jose Antonio ere isildu egin zen, eta egonean geratu zen.



FANITO



Babadiu! Zeinena duk bañista hori? Piura horrekin Hondarbira etorriya? Egis ari duk o se?

Ta beste buelta bat! Ene! Aizak! Kontuz ibili hadi, motel, buelta ta buelta, ta gero mareatu!

Adadiós! Ta nire ondoan eseri! ¹Tokatzen! Ospa ²martxaberian hemendik!

Ta, uain, “egun on” esanak! Biñon sé? Jo zio txoro bolara, o se? Ixiliko motel! Tirojua hago, hi.

Tira, tira, arrut! ³Mantxurriano zikin hori! A, ez, “egun on” esan dik,

.....

¹ TOKATZEN: Harridura adieraztea zerbait edo norbait lekuz kanpo dagoenean

² ARRUT: Frantsesetik “en route, martxan

³ MANTXURRIANO: kanpotarra, euskalduna ez dena



euskalduna duk. Ba kakiña ibiliko duk.

Bai, tori! Eta uain egualdiya gora ta bera? Alproja galanta, hi!
Pake eman zak!

Veraneanteak beti berdin.

Ara! Berriz? Hasiko duk berriro blagan!

***BATUAZ**

Badugu orain ere! Norena da turista hori? Itxura horrekin
Hondarribira etorria? Benetan ari da?

Eta beste buelta bat! Ene! Aizu! Kontuz ibili motel, hamaika buelta
emanda zorabiatuko zara!

“Ahí va Dios!” Eta nire ondoan eseri da! Bai zera! Ospa ziztu bizian
hemendik!

Eta orain “egun on” esan du. Baina zer? Burutik joanda dabil, ala?
Zaude ixilik motel. Erotuta zaude!

Tira, tira “en-route”! Mantxurriano zikin hori! A, ez, “egun on” esan
du, beraz euskalduna da. Ba mozkortuta egongo da.

Bai, zera! Eta orain eguraldia gora eta behera. Alproja galanta! Eman
pakea!

Turistak beti berdin. Hara! Berriz! Hasiko da berriro hizketan!

¹ Blagan: Hizketan. Hitz egin



SOLASEAN

- Egun on, gizona, Jose Antonio nauzu, Tolosakoa.
- Eerki ba. Urte askotako, Jostonio.
- Ez, ez, Jose Antonio.
- Hoi ba, Jostonio.
- Euskaltzaindian egiten dut lan.
- Euskalzaldiyan ta honera etorriya? Bai arrarua!



- Euskalzaldiyan ez, guk zaldirik ez dugu. Euskaltzaindian. Guk hizkuntza gordetzen dugu.
- Bai, batzekiat zer duken hoi ta zer itten dezuten.
- A... ondo da. Aizu, txosten bat egin behar dut hemengo hizkerari buruzkoa eta portuar batekin hitz egin beharko nuke. Ahal izango nuke zurekin hitz egitea?
- ¹Blagan haiz ya.
- Fenomeno. Hemengo euskara aztertu nahi dut eta.
- ²Nikenikeningo.
- Barkatu?
- Gure blagatzeko maneriya eztukela posible estudiatzea. Belarriya jarri ta geo paperian dana ³tzan jantú. Biñon komáidios que hemendik kanpo inork eztikela jakingo zertaz ai haizen.
- Beno, baina gustatuko litzaidake saiatzea zure laguntzarekin. Zer iruditzen zaizu?
- Zer iruditzen? Ba ⁴trikerua dukela ⁵kaskan ta ⁶helizérúa tra-tra-tra iten dikela.

¹ NIKENIKEGINGO: Nik ez nuke egingo

²TZAN JANTU: hor bota

³TRIKERUA: helikopteroa

⁴KASKAN: buruan

⁵HELIZERUA: helizea



Itsas-Etxea

- Ondo da, orduan elkarrekin egingo dugu lan. Bihar ordu berean hemen?
- Portzikason ⁷torronara lehenago, dozeymediako autobusa hartu behar diat eta, Sansebastianera ⁸fateko.
- Ados. Horrela geldituko gara bada.
- Biñon ze in bihar diat nik?
- Nirekin hitz egin, besterik ez. Aizu, gauza bat, zure izenik ez didazu esan.
- Fanito
- Fanito? NANen izen hori agertzen da?
- Motel, motel, Juanito didak jaiosz, baina herriyan Fanito ezaguna.

.....
⁶PORTZIKASON: Por si acaso

⁷TORRONARA: Etorri honera



HIZTEGIA



Baina hurrengo egunean, José Antoniok ezin izan zuen bere hitza bete, autoa hondatu zitzaion eta. Motoa hartu behar izan zuen, eta aurreko egunean egin zuen bezala, Hondarribiko Benta Zaharrako aparkalekuan aparkatu zuen.

Handik Marinarantz abiatu zen haren lagun berriaren bila. Baina bidea aldatu zuen, ohiko beste muturretik joan zen eta.





Izkin batean taberna bateko terraza zabal eta handi bat ikusi zuen, estalita. "Normal -pentsatu zuen- egun euritsuak ugari dira hemengoak".

Aurrera jarraitu zuen eta parean zegoen arku baterantz abiatu zen. "Hermandad" esaten ziotela jakingo zuen gero.

Baina hura zeharkatu baino lehen denda bitxi bat zegoela beste izkin batean ohartu zen. Mota guztietako tresnaz beteta zegoen. "Horiek dituk maxinak, motel", entzun zuen buru barnean Fanitoren ahotsa, bitxia zuen doinuarekin.



Errepidera iristean,
ezkerretara begiratu zuen
autorik zetorren ikusteko,
eta eliza polit bat ikusi
zuen. Baina ez zen hara
joan, Fanitorekin hitzordu
bat baitzuen.



Bezperako banku
berberean eserita zegoen.
Txapela buruan, txotxa
hortzetan, makila
eskuartean eta begirada
galdua.

- Egun on, Fanito. Barkatu,
e? Badakit lehenago
geratuak ginela baina etorri
ezinean ibili naiz, autorik
gabe geratu bainaiz.
Eskerrak moto bat dudan.

- Seguru ¹hanka-tarteko
trinki trankan etorri haizela
dena emana.

- Horixe bera!

- Ai alu horrek! Zeren bila
ibiliko haizen hi!



¹ HANKA TARTEKO TRINKI-TRANKA: Motorra



- Zeren bila? Esan nizun bada. Zurekin hitz egin nahi dut.
- Enekin? Bai zera! Nik ez diat deus inportanterikan esateko ba!
- Baietz ba! Adibidez, itsasoa
- Bai zera! Urde zakila! Biñon, biñon sé uste? Diksionario bat naukela o sé?
- Ez, baina zuen hizkera ezagutzea gustatuko litzaidake, nola esaten duzuen gauza bat edo bestea.
- Hago, hago, ba horretako hobe duk axul axulatua ta de cuando en cuando un flor.
- Eins?

²Fuete: Cohete, suziria

³ALTZAFUEGOA: su-artifiziala

- Blagan egonda aterako ditukela hik behar dituken espresio hoyek. ²Fuete eta ³altzafuegoak ez dituk biar. Normal normal ai, motel!

- Bai? Zuk uste?

- Dudan!

- Ederki bada. Eta lana bukatzean bisigu bat jatera gonbidatuko zaitut. Hitz ematen dizut.

- Ara, ara, ez prometitu deus! ⁴Pallan-pallan joaki gaituk, ta ⁵arrozela neuk ingo diat, hik ⁶putxero presionen iteko kapaza haiz ta!

Eta bat-batean irri-karkailean hasi zen Fanito, altxatzeari ekiten zion bitartean. Kostata zebilen. Hanka okertuek ez zioten arin-arin mugitzen uzten.

- Ikusten? Ttikiya ta konkorduna baina sasoia dit oraindik. Beno, egia esana, “zahartrosis” madarikatu honek kriston zartako eman dio osasunari. Aaaaa, kaka zarra! Ainak ez dik barkatzen! Beno, ⁷fan beharra diat.

- Ondo da. Lagunduko zaitut?

**ENTZUTEKO
KLIKATU
HEMEN**



⁴ PALLAN-PALLAN: poliki

⁵ ARROZELA: Bisigua

⁶ PUTXEROPRESION: Puchero a presión, presio-eltzea

⁷ FAN: JOAN

⁸ A TXAKULETAS: SORBALDA GAINEAN

- Zera! Lagundu? Autobusera? Nola eramango diak ba, ^{8a} txankuletas o sé?

- Ongi da. Bihar berriro hemen?

- Etortzen bayaiz, hementxe izango nauk

- Konforme. Bihar arte bada.

Eta Fanitok irribarre txiki bat oparitu zion martxa hasi baino lehen. Jose Antoniok ikusi zuen nola urruntzen zen gizona, binbili-bonbolo, itsasoan balego bezala.



MEDIKUA



Hurrengo egunean, José Antonio ohiko bankura joan zenean oraindik hutsik zegoela konturatu zen. Harritua geratu zen, eta kezkatuta. Ordurako Fanito beti izaten zen han, eserita, aurrera begira, deus ikusi gabe.

Itxoiteko asmoz eseri zen, eta handik oso gutxira errenka zebilen itzal bat agertu zen eguzkipean.

- Koño Jostonio, berriro hemen!
- Bai, halaxe geratua ginen, ezta?
- Beno, hemen egongo nikela esan niken biñon ez zer ordutan, ene! Agente Cipol ematen duk.
- Egia esan, apuratua nengoen; atzo autobusa hartu behar izan zenuenez, agian zerbait gertatu zitzaizula pentsatu dut.
- Zerbait gertatu? Ez, ez, medikura fana niken, besteik ez.
- Medikura?

- Beno, ¹ izanduketu naiz noizbait, hi ez o sé?.

- Bai, bai, jakina, baina sasoi bete betean zeundelakoan nengoen. Horrela dirudi behintzat.

- Ya, pues ya esan nioken medikuari que los ojos me hacen ñir ñir y ² las piernas me dan amor.

- Eta? Zer esan zizun?

- ³ Maxina batzuk hartu zitian, proba batzuk egin eta etxera bidali. Hoi bai, Ayuntamientotik ⁴ porrekallesen Hermandadeño ez fateko esan zidan.

**ENTZUTEKO
KLIKATU
HEMEN**



- Eta?

- Ni fan.

- Bai zera! Baina zergatik?

- Asomame bentanera ta tiempo marabillosua ikusi. Horregatik aprobetxatu.

- Baina, gizona, medikuak esaten badizu ez egiteko gauza bat, kasu egin behar diozu!

.....

¹ IZANDUKETU: Izan naiz

² LAS PIERNAS ME DAN AMOR: Amore eman edo amorratuak (okertuak) izan

³ MAXINA: tresna

⁴ Porrekallesen: kalejiran

⁵ IXILIKONAI EDO IXILIKO: Ixilik hago hi edo ixilk hago

⁶ KAPEN TXORROX: Buruz behera uretara jauzi egitea

- Motel, ⁵ ixilikonai! Uain galaziya duk portutik ⁶ kapen txorrotx jaustia eta leno beti iten genian hola (beno, beti, beti, ez, ⁷ abiyua hartzen genianian ⁸ kapun tiratzen gintuan). Así ke, beti beti kasorik ez diagu egin biar, askotan mandatzen ditekena aldatzen ditek ta.

- Beno, baina zaindu behar. Eta orain zer moduz zaude?

- Ba ⁹ txetxeiña, biñon ¹⁰ txol ondo. Dos de mayon bueltatu biar dit berriz, biñon mientras tanto kapelua ondo jantzi ta betiko martxan.

- Baina deskantsatu behar duzu.

- Ara, ara, ara, ¹¹ lajanak pakiyan. Biñon, biñon se uste duk ba, ¹² de txorrotx a la cama fan biar ditela o sé. Urde zakila! Uaintxe bertan ¹³ fanolera faki nauk salto batian!

- Ez da izango! Benetan?

- Kar, kar, kar, txorua haiz hi! Ez duk ikusten bazkaltzeko ordua dukela o sé!

- Ah, ba ez, ez naiz konturatu, barkatu. Joan beharra duzu jada?.

⁷ ABIYUA: Abiadura

⁸ Kapun: "De palillo" baina buruz

⁹ TXETEIÑA: Porro egiña, Nekatua

¹⁰ TXOL: oso

¹¹ LAJANAK: Utzinak

¹² De txorrox: Buruz

¹³ FANOLERA: Forura

- Bai, gaur bai. ¹⁴ Gainikera lagun bat etorriko zaidak bisitan eta txukundu biar diat etxia,¹⁵ kattuttero aurkitzeko berak. Fregadera gainezka diat eta ez diat harek lau haizetara ¹⁶ denekeri esatea kotxino hutsa naukela.

- Ale ba, goazen. Bihar elkartuko gara berriz, nahi baduzu.

- Ni onara etorriko nak, bai. Hik ikusi zer egin nahi duken.

Eta hori esanda bi gizonak zutik jarri ziren, bakoitzak bere bidea hartzeko.



¹⁴ GAINIKERA: Gainera

¹⁵ KATTUTTERO: Atsegiña, leku goxoa, erosoia

¹⁶ DENEKERI: Denei



LAGUNA



Hurrengo egunean, José Antoniok ez zekien zer egin. Astuna ez zuen izan nahi, eta, agian, haien arteko solasaldiekin Fanito nekaturik izango zela pentsatu zuen. Baina kuriositatea zuhurtzia baino handiago zenez, azkenik Marinako ohiko bankurantz abiatu zen.

Eta han ikusi zuen, eserita, zahartuta zegoen gizon hura. Irribarrea sortu zitzaion ezpainetan. Ez zekien zergatik baina gustukoa zeukan Fanitorekin hitz egitea. Solasean nahiko zakarra zela ondo zekien, baina haren hizkera eta mintzatzeko era bitxia atsegin zuen.

Eta, zirudienez, Juanitori ez zitzaizkion desatsegina egiten Jose Antonioren bisitek, inoiz ez baitzen altxatzen ospa egiteko asmoz.

Hala edo hola bi gizonen artean harreman berezi bat sortzen ari zen.

- Eguerdion, Fanito! Zer moduz atzo lagunarekin? Gustora bazkaldu al zenuten?

Hasi zen esaten Jose Antoniok. Eta, bat-batean, inoiz baino jaso zuen erantzunik luzeena entzun zion Fanitori. Umore onez zegoela gizona pentsatu zuen, baina entzundakoak oker zebilela haurnarrarazi zion... Edo ez? Harekin inoiz ez zekien serioz egiten ari zen edo txantxetan.

- Buf, ¹topeiña bukatu genian. ²Txipoitara fana zegoen laguna, nahiz eta lanbrua izan, eta ³gisasolan preparatu genitian. Gero, kamaratik txuleta bat atera eta pla-pla parrillan egin. ⁴Hexé-hexia zegoan. Gustora egin genion hautziki. Ikusiko bazian hura ⁵betenáguak ez zekiat zer esango zian. Gero, postrerako, ⁶frantxipan eta ⁷pexiglás. Como marqueses. Sobran geratu huena ⁸xenbreran eraman zian alproja horrek, asi ke mendariya hartu nianian ⁹patata-txuflé besteik ez zegoen etxean (*biñon ez hor, kalia zegoen patateruna, e? Sé lastima fan izana. Sé onak egoten zituan haiek!) Bueno, total, ez zekiat sé demontre gertatu huen gero, baina tripak gotti-betti hasi, ¹⁰goittinaia ta guzti izandu nian ta, al final, dan-dana bota. Hau desastria! Ta gaur ba astelehenakin.

.....
¹ TOPEIÑA: Bapo, ase

² TXIPOITARA: Txipiroietara

³ GISASOLA: Guisa-sola, presio-eltzea

⁴ HEXÉ-HEXIA: xamurra

⁵ BETENÁGUA: beterinarioa, albaitari

⁶ FRANTXIPAN: Kaialde goxotegian betidanik egin den pantxineta

⁷ PEXIGLÁS: kopa

⁸ XENBRERA: Fiambrera, zakote-ontzia, tuper

⁹ PATATA-TXUFLÉ: patata frijituak

¹⁰ GOTTINAHIA: goragalea

* Zuloaga kalean, lehiu berde batean, egin berriak ziren patata-frijituak saltzen ziren. Oso ezagunak ziren, eta oso onak ere bai.



Kai-Aldeko frantxipan bi puxketa, bi txapel txikiak eta bi gateaux-basque edo euskal pastela. Hondarribian beste antzinako goxotegi bat dago, Hawaii. Legamia, Arbelaiz eta Amona Margarita dira beste goxo-denda batzuk.

- Astelehena? Baina gaur osteguna da!

- Babulio horrek! Astelehena, sukarra, festondoa, nola kristo esaten duzue hiriko señoirito kafriar hoiek?

- Ah, ados, baina mozkortu zinen, ala?

- Ez dit uste, baina ¹¹kakiña nikela ematen du gaur.

- Agian arraiarekin gaizki egin zenuen digestioa.

**ENTZUTEKO
KLIKATU
HEMEN**



¹¹ Kakiña: Mozkorra

- Arraiakin? Ene! Pues alerjia izan banian, hilik izango niken!
Txikitan ¹²tretxoka ibiltzen gintuan ¹³iya iya eunero. Beste
batzutan, ¹⁴xalabardua hartu ta tira, kai zarrera, bentara edo
espigoyara. Geo, gaztetan, txintxorrua hartzen genian ta, ale,
itsasura.

- Eta itsasontzira ez zara inoiz igo?

- Biñon, biñon, hi sé? Tontolapikoa
alakua! Klaro barkuan ibilia naukela!
Hasieran ¹⁵txotxua bezala ta geo
mariñela. ¹⁶Txikotia ¹⁷txetu zala
iragartzen ziatenian gaizki pasatzen nian.

**ENTZUTEKO
KLIKATU
HEMEN**



.....
¹² TRETOKA: Tretxoen bila joan dagokion tresna hartuta

¹³ IYÁ-IYÁ: ia-ia

¹⁴ XALABARDUA: xalabardo

¹⁵ TXOTXUA: Itsasontziko laguntzaile gaztea

¹⁶ TXIKOTIA: Itsasontzian arraiak igotzeko erabiltzen den polea

¹⁷ TXETU: puzkatu

- Noiz?

- Motel, motel, soka eta ¹⁸roldana puskatzen zituanean. “¹⁹Itxeki ondo!” esaten zian patroiak eta nik eskuak ²⁰gor-gorrian, eta gorri-gorriak ere bai! Brankan, aunitz ²¹lanabesa beti. Mutilak, han-hemenka. Geo, portura etorri ta dana ²²xaian gorde biar. ²³Zoko usaia beti han! Ta geo, etxian, lenbixiko gabian,²⁴ mesanotxian ²⁵piru ²⁶axulatuak ikusi ta lorik ezin hartu.

- Piru axulatua?

- Kar, kar, kar, harrittua ta perplejua ²⁷laja haut! Bai, es ke figurita bat nian etxian, ²⁸ata baten itxurakoa, ta axulatua huen!

- Aaaaaa! Ez nuen ulertzen!

**ENTZUTEKO
KLIKATU
HEMEN**



¹⁸ ROLDANA: polea

¹⁹ ITXEKI: eutsi, atxiki

²⁰ GOR-GORRIAN: gogor

²¹ LANABESA: tresnak

²² XAIA: arraia uzteko arrantzaleek erabiltzen dituzten sotoak edo lekuak

²³ ZOKO: hezetasun, umeltasun, umedade

²⁴ MESANOTXIA: gau-mahia

²⁵ PIRU: Ahatea

²⁶ AXULATUA: Urdina

²⁷ LAJA: Utzi

²⁸ ATA: ahatea

²⁹ HORTZIOK: Hor zagok

³⁰ HABLATZEKO: hitz egiteko

³¹ KASU: Kontuz

- ²⁹Hortziok ba! Gure ³⁰hablatzeko maneriya ez duk ulertzeko erraxa!

- Ez, ez, ez nekien zer egiten zuen piru axulatu batek zure mesanotxian!

- Kar, kar, kar! ³¹Kasu motel! Martxa hontan portuarratz hitz egingo duk eta!

Elkarrekin hasi ziren barre egiten, betiko lagunak balira bezala. Gero, José Antoniok erlojua begiratu zuen.

- Joan beharra dut.

- Bai, nik ere bai. ³²Txoro-txoro egondu gaittuk luzaruan blagan, gaztetan petrillan egiten genian bezala. Ale. Guazen.

- Ederki ba. Bihar arte?

- Bai, hoixe! Ez egin ³³faltxiki e?

- Ez da pentsatu ere!

Eta horrelaxe urrundu ziren bata bestearengandik.

Behin etxean, Jose Antoniok entzun zituen grabazio guztiak. Barrezka ibili zen, bakar-bakarrik, baina ez zuen ezta nota bat hartu. Nola egin? Lan zaila izango zen hura. Uste zuena baino zailagoa! Baita uste zuena baino politagoa ere.

.....
³² TXORO-TXORO: txolo-txolo

³³ FALTXIKI: Kale, piperra



ITSAS ERTZEAN



José Antoniok ez zuen batere argi zer egingo zuen biltzen ari zen material horrekin. Lehendabiziko asmoa erabat aldatu zuen, ondo baitzekien aurkitzen ari zena ez zela hizkera xume bat, bizimodu bat eta nortasun bat baizik. Baina ondo ulertzeko Fanito itsasora eraman behar zuen. Barneko ahotsak ur gaziaren ondoan hitz jarioa ez zela goxotuko esaten zion, eta hura konprobatu nahi zuen. Batez ere, ikusi nahi zuen ea gizonaren jarrera ur-putzu zabal horren aldamenean aldatzen zen.

- Ur-putzua itsasoa? Hi sé? ¹Ttanttofalta o sé? Ene! Hoi



¹ TTANTTOFALTA: Tuntuna

entzutia eé!

- Ez haserretu, ez haserretu. Badakizu ni barnekaldekoa naizela, eta itsasoarekiko daukadan harremana justu-justukoa dela. Barkatu.

- Ez ta pekatu, gizona, biñon en fin...

- Bai, bai, arrazoia duzu. Aizu, baina etorriko zara nirekin Paseo Butronera itsasoa ikustera edo ez?

- Arraroa haiz gero! Paseo Butronera, bañistak bezala. Ale, guazen ba, biñon poliki-poliki, abiyua ez hartu, e?, ahuleriya diat hankatan ta!

Eta horrelaxe jarri ziren martxan bi gizon haiek, iraileko goiz hartan. Eguraldi freskoa zegoen. Eguzkitsua egon arren, aldaketa zetorrela sumatzen zen.

Kai zaharreko hondartzatxoaren parean zegoen banku batean eseri ziren. Fanitok makila altxatu zuen eta Hendaiako espigoiak bukatzen zuenerantz seinalatu zuen.





- Enbata idorra zetorrek.

ENTZUTEKO

KLIKATU

HEMEN

- Enbata idorra? Hori kontraesana hutsa da!

Fanitok muturra okertu zion Jose Antoniori, eta hark ez bazuen ezagutu, mespretxuki begiratzen ari zitzaiola esango zuen.

- Hi bai kontraesana, alu horrek!

- Enbata itsasoaren ekaitza da, ezta? Beraz, nola demontre izango da idorra?

- Ba tximista ta trumoa bakarrik botatzen dikenian ta urik ez, tontolapiko hori!.

- A!

Momentu horretan parrezka hasi zen Fanito, ia, ia lehertu arte.

- A sé aurpegi duken! ²Jotapotua
geatu haiz!

- Bai, egia esanda zaila egiten zait
ekaitz bat lehorra izan daitekeela
ulertzea.

- Ya bazekiat, “para cosas raras
Fuenterrabía y Nueva York”.

- Aizu, eta itsasontzi horiek
atunetara joaten dira?

Eta berriro Fanitoren barre algara,
malkoka, zotinka.

- Biñon, biñon, nundikan aterata
haiz hi? Eztuk ikusten barku hoiek
ttikiak ditukela, o sé?

- Ui, zer dakit nik! Guztiak ikusten
ditut nik igualtsu.



² Jotapotua: Erabat harritua

³ LUPITARA: Lubinetara



Kirol-kaia, Fanitok "Porto-Banús" esaten diona

- Pues ez. Atunetara edo ³lupitara faten ditukenak kaian zeudek.

- Baina hau ez al da kaia?

- Bai, ⁴kai xarra.

- A, eta hemen ez daude.



Kirol-kaia

⁴ KAIXARRA: Kai zaharra

⁵ BIÑON: Baina

- Ez, beste kaian zeudek. Esan diat ba!. ⁵Biñon, ojo!
“Portobanus”en onduan zegokenan ez, e? Bestian, bestian,
benta berrikuan.

- Ados, ados. Aizu, eta txalupa hori hori?

- Oi duk botteruna, Hendaiara fan ta etorri itten dikena.

- Egunero?

- Ta etengabian, fan ta etorri, fan ta etorri.

Eta hura esaten zuen bitartean, eskua eta besoa mugitzen
zituen aurrera eta atzera.

- Beno, ez da harritzekoa. Jende anitz dabil orain Hondarribian.

- Klaro, zortziyan ⁶tropa ikustera etorriya. Gustuko ditek
⁷hartxerua ikustea hola, elengantia, eta ⁸kalderonak ⁹kantina
sorbaldetan.

- Eta zuk ez duzu gustuko, ala?

- Bai, por supuesto, biñon jende kantidad honekin nahiago

.....
⁶ TROPA: Alardea

⁷ HARTXERUA: Hatxeroak

⁸ KALDERONAK: Kuberoak

⁹ KANTINA: Kubo

¹⁰ MAXIMENTU BELARRA: Goroldioa, Jaiotzan (naximentuan) jartzen dugun
belarra

¹¹ PARERA: Zartagina, padera



Kai-berria edo Portua

diat gabonak etortzia, ¹⁰maximentu belarra hartu etxeko belena jartzia, ¹¹parera hartu ta arraultz frijituak itia ta anteojuak jartzia urte zarreko mahatsak noiz jan telebisiyuan ikusteko.

- Ene! Neguan egotea udaran egotea baino hobeagoa iruditzen zaizu?

- Ez, herriyan bakarrik egotea, bañistak gabe.

- Baina neguan eguraldi txarra dago normalean, eta seguru ezin izango zarela atera Marinako bankuan lasai ederrean eserita egotera.

- Urde zakila! Zer jakingo duk hik?! Guardasola elegantia diat egun hoietan kalera ateratzeko. Gainerikan, euriya barra barra botatzen badik, etxeko sotuan geratzen nauk.

- Sotoan? Etxeak sotorik al du?

- Ara, ara, ara! Denak. Nundikan sartuko gaituk ba?

- Sartu? Etxera? Ba atetik, ataritik, portaletik...

- Ba oixe, motel, oi da sotua ba!

- Aaaaaaa, ados, ados, gaizki ulertzen ari nintzen. Nik uste dut nahiz eta hemen bizitza osoa eman, inoiz ez dudala esaten duzun guztia ulertuko.

- Nigarrez hasiko haiz uain? ¹²Pallako batzuk nahi dituk tristura kentzeko?

- Ez barrik egin, ez. Hona etorri nintzen lehenengo aldian ideia bat neukan buruan, baina zu ezagutu ondoren, ideia horrek indarra galdu du. Pixkanaka pixkanaka desagertuz joan da. Zuen hizkera dokumentatu nahi nuen, aztertu, eta horrek akademiako atea irekiko zizkidalakoan nengoan. Baina oker nenbilen. Zuen hitz egiteko modua ez da tratatu bat edo txosten bat idazteko modukoa, bizitzeko baizik, sentitzeko baizik. Agian, euskaltzainek ez dute ulertuko. Beharbada norbaitek esan dezake zuena ez dela batua, eta akats akademiko asko dituzuela. Baina ez dit axola. Benetako hizkuntza duzue zuek eta mantendu behar duzue. Eta ni harekin maitemindu naiz.

- Jesus, María ta Joxé! ¹³Txupalangai! Ezin diat hirekin jostatu

**ENTZUTEKO
KLIKATU
HEMEN**



¹² PALLAKO: Maña, laztana

¹³ TXUPALANGAI: Joku batean "ez du balio" esaten denean

¹⁴ TXOPERA: txikito, pote

¹⁵ IÑA: egiña, ados

¹⁶ AZEMIN: Goazen

normak kanbiatzen dituk eta! Biñon, biñon, motel! Gehiegi
pentsatzen duk! Guazen ¹⁴txopera bat hartzera, ta ikusiko duk
nola errekuaratzen duken animoa!

- Ederki! Agian hoberena izango da, bai.

- ¹⁵Iña! ¹⁶Azemin!



ESKERRIK ASKO



Attak piztu zuen ideiarenugarra.

Aritz buru-belarri jarri zen material osoa biltzen.

Izaskunek lehendabiziko begiratu egin zion, eta aurrera jarraitzeko bultzada eman zidan.

Mikelek oztopo guztiak gainditu zituen gure adiskidetasunagatik, eta inoiz pentsatu ez zuena egin zuen.

Eta Joxerrak akats guztiak zuzendu zituen, nahiz eta idazlana oso akademikotzat ez hartu.

Nola ez dut nire esker ona azaldu behar?

Jende aparta hau gabe lantxo hau egitasmo bat besterik ez litzateke izango.

Aritzekin solasean egotea gozamina da. Beti dauka zeozer kontatzeko eta irribarrea lorarazteko, hitz egiteko duen moduari esker. Egun batean “portuarrez” hasi zen hizketan. Gure etxeko mutikoak alboan zeuzkan, eta harrituak begiratzen zioten. Ez zuten tutik ere ulertzen. Eta tristura

sumatu nuen. Penagarria iruditu zitzaidan "hori hablatzeko maneria" hura desagertzea edo ez ezagutzea; azken finean, gure nortasuna zen eta.

Atta xirikatzen hasia zen Aritz, eta laster oso elkarrizketa barregarria sortu zen. Eta bitxia. Eta aberatsa. Eta paregabea.

Horregatik eskatu nion Aritzi berak buruan zeuzkan esamolde horiek, hitz horiek, aditz horiek, laburbilduz, hizkuntz altxor hori, libreta batean apuntatzeko. Ez nekien zer egin behar nuen, baina, gutxienez, idatzita izango nuen dena, ateratzeko aukera on bat azaldu arte.

Baina papertxo horietan boligrafoz idatzita zegoena bizirik zegoen, hizki bakoitza libretatik bereizi eta bere kabuz mugitzen hasiko balitz bezala. Begiak ixten nituenean, dantzan ikusten nituen boligrafoz idatzita zeuden esaldi haiek, etengabea, merezi zuten lekua aurkitu nahian. Horregatik, handik oso gutxira ordenagailuaren aurrean eseri nintzen eskuz idatzitakoak teklatuak har zitzan, eta sor zezan behar zuen istorioa. Eta nik, zintzo-zintzo, utzi nion orrialde hauetan agertzen dena egiten.

Amaitzean, Izaskuni pasatu nion. Haren iritzia beti kontuan hartzen dut, baina kasu honetan, are gehiago, Hondarribiarekiko duen harremana oso estua baita eta hemengo hizkera ondo ezagutzen baitu, baita maitatzen ere. Gozatu zuen. Hala esan zuen behintzat. Oso modu onean, arinean eta dibertigarrian islatzen nuela izaera sakon bat ziurtatu zidan.

Bukatuta zegoenean, ahotsak beharrezkoak zirela konturatu nintzen, Hondarribiko hizkeran doinua da-eta protagonista

nagusia.

Hori dela eta, Aritzengana joan nintzen berriro, eta Fanitori ahotsa eman behar ziola esan nion. Segituan esan zidan baietz. Era berean Mikeli proposatu nion Jostonioarena egitea. Lotsak aurrerako pausoa emateko baimenik ez zion ematen. Gainera, irakurtzen oso trebe ez zela esaten zion bere buruari behin eta berriro. Baina, azkenean, "lianta" honi ezin zion ezetz esan.

Eta, horrelaxe, egun batean, beste inori esan gabe, hirurok elkartu ginen Marinan. Gure ondoan bi emakume zeuden barrezka, eta ea noiz estreinatu behar genuen antzezlan hura galdetu zigun. "Ez da antzerkirako. Liburu bat egingo dugu!", erantzun zion Aritzek. Eta begiratu zidan.

Aldi berean, Izaskunek deitu zidan eta ea noiz bukatuko nuen prestatzen ari nintzena galdetu zidan. Irakurtzeko eta aditzeko irrikan zegoela esan zidan.

Sorbaldak goititu, eta beste erremediorik ez nuela izango jakin nuen. "Tira. Attari gustatuko zaio, haurrek zerbait ikasiko dute, eta parte hartu dugunok oroitzapen polita izango dugu".

Eta hona hemen emaitza. Bistan dagoenez, lan honetan laguntzaile finak izan ditut. Meritu gutxi dut nik, beraz, lehen esan dudan bezala, alboan izan ez banu jende aparta, orain lan hau egitasmo bat besterik ez bailitzateke izango.

Horregatik, esker anitz, bihotz-bihotzez.

Egileak



Aritz Gonzalez Amundarain

Hondarribitarra, 1991an jaioa.

Majestaritza ikasi zuen Euskadiko Unibertsitate Publikoan.

2017an Endanea Gardenen hasi zen lan egiten, eta gaur egun Aduna Gardenen egiten du lan.

Horrez gain, herriko kultur arloan oso aditua eta aritua da. Klink soziedadeko bazkidea da, eta bertako abesbatzaren zuzendaria ere. Parrokiako organojolea da.

Mudikazale amorratua izanda, Donostiako Orfeoiaren kidea da.

Lanagatik izandako herriko jendearekiko harremanagatik, haren belarri musikalagatik, eta Hondarribiko biztanleen nortasuna eta hizkera primeran ezagutzeagatik egitasmo hau aurrera eramateko kolaboratzailerik proposena da.

Aritzek Fanitori jarri dio ahotso liburuxka honetan agertutako audioetan.

Bakarne Atxukarro Estomba

Iruñean (Nafarroa) bizi den Hondarribiko Irundarra (Gipuzkoa 1974). Nafarroako Unibertsitatean Kazetaritzan lizentziatu zen eta gaur egun Iruñerriko Mankomunitateko komunikazio teknikaria da.

Lehenago Barañaingo Auditorioko Komunikazioko arduraduna izan zen eta zuzendaritza lanak egindakoa da hainbat aldizkaritan (RiberAlta, Hiru Herri), eta zenbait aldizkaritako ohiko kolaboratzailea da, adibidez Jai Berri, Vivir en Barañain, etab.

Urte batzuz Canal 4 Navarra eta Radio Navarrako departamentu komertzialean lan egindakoa da.

Izaskun Zubialde eta Asun Egurzarekin batera Euskal Mitologiari buruzko ipuin bilduma batzuk kaleratu ditu euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez: **"Euskal Mitologia. Haurrentzako ipuinak"** I eta II (Denonartean argitaletxea; **"Euskal Mitologia haurreei kontatua"** (Txalaparta argitaletxea); **Olentzero eta Mari Domingi** (Denonartean argitaletxea); **Tartalo** (Denonartean argitaletxea); **Basajaun** (Denonartean argitaletxea); **Mari** (Denonartean argitaletxea).

Egile berberekin beste bi ipuin kaleratu zituen Denonartean argitaletxearen eskutik: "**Lekim**" eta "**Sumendi bat baratzean**". Eta Izaskunekin, ipuin bilduma bat plazaratu zuen Erein argitaletxearen bidez: "**Rotia eta Rensu**".

Gazteentzako lanak era baditu, Euskadi Sarirako finalista izan zen "**Sarerik Gabe**" eleberria besteak beste, Izaskun Zubialderekin batera idatzi zuena (Denonartean Argitaletxea).

Horrez gain, helduentzako beste liburu batzuk argitaratu ditu: "**Emakume baten hausnarketak**", "**Gizalabak**" eta "**El café de los miércoles**". Eta beste bi tematikoak direnak: "**Ametsa, un sueño hecho realidad**" eta "**Coral Barañain, 25 años contando canciones; 25 años contando historias**".

Azkenik, kontakizun batzuk kaleratu ditu Oskarbi eta Nafarroako idazleen elkartearen eskutik, bietako bazkidea baita. Eta Ondarea elkarteak "**Irun, historia erraldoia**" kaleratutako liburuan ere parte hartu zuen.

Euskalerrria Irratiko kolaboratzailea da eta "Gizalabak" saioan emakumeei buruz hitz egiten du:
<https://euskalerrriarratia.eus/bereziak/gizalabak> eta [ecoblog.mcp-ean](https://ecoblog.mcp-ean.com/ingurumenari-buruzko-postak) ingurumenari buruzko postak argitaratzen ditu.

+ info:

www.tantomito.com

IG: @bakarnea

TW: @bakarne_a

Aurkibidea

AURKEZPENA

JOSE ANTONIO

FANITO

SOLASEAN

HIZTEGIA

MEDIKUA

LAGUNA

ITSAS ERTZEAN

ESKERRIK ASKO

EGILEAK